

# DEKRETUA / DECRETO

**Espediente zk./ Expediente nº:** 1084/2026

**Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen**

**Prozedura/ Procedimiento:** Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

**Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente:** Norgehiagoka bidezko Diru-laguntzen deialdia eta emakidapena / Convocatoria y Concesión de Subvenciones por Procedimiento de Concurrencia Competitiva - GALDAKAOKO KOMUNITATE-EKINTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATU ETA SENDOTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

### AURREKARIAK

Lurraldean sendoa eta egonkorra den parte-hartze ekosistema egon behar da kohesionatutako komunitatea eta herritar aktiboak lortzeko, bai eta ondasun komunaren mesederako lankidetzak publiko-sozialak ahalbidetzeko ere.

Parte-hartze ekosistematzat jotzen dugu eragileek (erakunde pribatuek —irabazi-asmoa dutenek eta ez dutenek—, elkarteetan ez dauden herritarrek, beste administrazio batzuek eta abarrek) eta haien arteko erlazioek osatzen duten sistema, lurraldean zeharkakotasunez jarduten duena komunitatearen mesederako, hau da, jarduketa-eremu zehatz batera mugatzen ez dena eta komunitatearen edo horren zati baten (auzoa, gunea eta abarren) ongizate orokorraren alde lan egiten duena.

Tokiko administrazioak aipatutako ekosistema sortu, mantendu eta sendotzeko dauzkan tresna nagusietako bat dirulaguntzen politika da. Esparru ekonomiko, sozial eta kulturalean ibilbide luzea egin duen tresna da, sobera egiaztatu baita gizarte-sarea sustatu eta sendotzeko tresna gisa duen efikazia.

### ANTECEDENTES

La existencia de un ecosistema de participación fuerte y estable en el territorio es una condición necesaria para avanzar hacia una comunidad cohesionada y una ciudadanía activa, así como para facilitar formas de colaboración público-social que redunden en el bien común.

Hablamos de ecosistema de participación como un sistema formado por agentes (entidades privadas con o sin ánimo de lucro, ciudadanía no asociada, otras administraciones...) y sus interrelaciones, que opera en un territorio y que actúa en beneficio de la comunidad de una manera transversal, es decir, que no se centra en un ámbito de actuación concreto, sino que trabaja a favor del bienestar general de la comunidad o parte de ella (barrio, zona...).

Una de las principales herramientas que tiene a su disposición la administración local para crear, mantener y fortalecer este ecosistema es la política subvencional. Se trata de una herramienta con un largo recorrido en los ámbitos económico, social o cultural que ya ha demostrado sobradamente su eficacia como



Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua toki-erakundeen eta udalen eskumenak ezartzen ditu: *“Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologia eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.”*

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, oro har, eta bertako 8. artikulua zehazki, ezartzen dutenez, dirulaguntzak emateko asmoa duten udal guztiek dirulaguntzen plan estrategiko bat onartu behar dute.

Indarrean dagoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoak parte-hartzearen sustapena jasotzen du bere helburuen artean. Hori bi diru-laguntza lerroren bidez lortuko da:

**1. diru-laguntza-ildoak:** Galdakako erakundeen mantentzea, funtzionamendua eta sendotzea.

**Xedea:** Ildo honen xedea da elkarrekin sustatu eta sendotzea herritarren nahiz komunitatearen parte-hartzearen alorrean, erakundeen gastu arruntekin laguntza ekonomikoa eskainiz.

**Programa:** 9241

**Partida:** 21 9241 48101

**Gehieneko aurrekontua:** 5.000 €

herramienta de promoción y fortalecimiento del tejido social.

La Ley de Entidades Locales 2/2016, del 7 de abril, establece en su artículo 17 las competencias propias de los municipios, entre las que se recoge la siguiente competencia: *“Ordenación y gestión de estructuras de participación ciudadana, transparencia, buen gobierno y acceso a las nuevas tecnologías. Administración electrónica, racionalización y simplificación de procedimientos. En particular, la promoción en el término municipal de la participación de los ciudadanos en el uso eficiente y sostenible de las tecnologías de la información y las comunicaciones”*

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y su artículo 8, en particular, establecen que todos los Ayuntamientos que tengan previsto conceder subvenciones deberán aprobar un Plan Estratégico de Subvenciones.

El Plan Estratégico de Subvenciones vigente recoge como uno de sus objetivos estratégicos el fomento de la participación. Ello se concreta en dos líneas de subvención:

**Línea de subvención 1:** mantenimiento, funcionamiento, y fortalecimiento de las entidades de Galdakao.

**Objetivo:** El objetivo de esta línea es el fomento y fortalecimiento del asociacionismo en el ámbito de la participación ciudadana y comunitaria desde el apoyo económico con los gastos corrientes de las entidades.

**Programa:** 9241

**Partida:** 21 9241 48101

**Importe máximo:** 5.000 €



**2. diru-laguntza-ildo:** proiektu interesgarriak herritarren nahiz komunitatearen parte-hartzearen alorrean.

**Xedea:** Ildo honen helburua da Parte-hartze eta Gardentasun Unitate Teknikoko jarduketaren eremuetarako interesgarriak diren proiektuak babestea.

**Programa:** 9241

**Partida:** 21 9241 48101

**Gehieneko aurrekontua:** 7.000 €

2023ko abenduaren 21eko Osoko Bilkurak Galdakaon ekintza komunitarioa eta herritarren parte-hartzea sustatzeko eta indartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoak hasiera batean onartu zituen.

Dagokion epea alegaziorik gabe agortu eta, beraz, oinarriak behin betiko onartu ziren 2024-0758 Alkatetzako Dekretuaren bidez. Halaber, 2024ko apirilaren 16ko 73. zenbakidun "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu dira.

Ondoren, 2025eko urriaren 30eko Osoko Bilkurak Galdakaon ekintza komunitarioa eta herritarren parte-hartzea sustatzeko eta indartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoaren aldaketa hasiera batean onartu zuen.

Dagokion epea alegaziorik gabe agortu eta, beraz, oinarriak behin betiko onartu ziren 2026-0100 Alkatetzako Dekretuaren bidez.

Parte-hartze eta Gardentasun Arloak txostena egin du 2026ko otsailaren 5ean.

**Línea de subvención 2:** proyectos de interés en el ámbito de la participación ciudadana y comunitaria.

**Objetivo:** El objetivo de esta línea es apoyar a proyectos que resulten de interés para los ámbitos de actuación del Unidad Técnica de Participación y Transparencia.

**Programa:** 9241

**Partida:** 21 9241 48101

**Importe máximo:** 7.000 €

En Pleno del 21 de diciembre de 2023 aprobó con carácter inicial las bases reguladoras específicas para la concesión de subvenciones para la promoción y el fortalecimiento de la acción comunitaria y la participación ciudadana en Galdakao.

Tanscurrido el período de alegaciones y no habiéndose presentado ninguna reclamación, dichas bases fueron declaradas aprobadas definitivamente mediante Decreto de Alcaldía nº 2024-0758 y publicadas en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 73, de fecha 16 de abril de 2024.

Posteriormente, el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 30 de octubre de 2025 aprobó la modificación de las bases reguladoras específicas para la concesión de subvenciones para la promoción y el fortalecimiento de la acción comunitaria y la participación ciudadana en Galdakao.

Tanscurrido el período de alegaciones y no habiéndose presentado ninguna reclamación, dichas bases fueron declaradas aprobadas definitivamente mediante Decreto de Alcaldía nº 2026-0100.

El Área de Participación y Transparencia emite informe el 5 de febrero de 2026.



Udal Kontu-hartzailtzak, 2026ko otsailaren 5ean, 21-9241-48101 eta 21-9241-48102 partidetan kreditu nahikoa dagoela egiaztatzeko txostena egin du.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 2003ko azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38 /2003 Lege orokorra eta aipatu legearen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Galdakako Udalaren Dirulaguntzen Emakida arautzen duen Ordenantza Orokorra; ordenantza hori Udaltzak onetsi zuen 2005eko ekainaren 24an (172. BAO, 2005eko irailaren 9koa), eta Udaltzaren 2007ko azaroaren 28ko Erabakiaren bidez aldatu zen (23. BAO, 2008ko otsailaren 1koa).

Hori horrela, eta udalaren Parte-hartze eta Gardetasun Arloak proposaturik,

Por parte de la Intervención Municipal, el 5 de febrero de 2026, se emite informe de existencia de crédito en las partidas 21-9241-48101 y 21-9241-48102.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

- La Ley 38/2003 General de Subvenciones del 17 de noviembre de 2003, como el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada ley.
- Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Galdakao, aprobada en el Pleno Municipal, celebrado el 24 de junio de 2005 (B.O.B. nº 172, de 9 de septiembre de 2005), y modificada por acuerdo plenario de 28 de noviembre de 2007 (B.O.B. nº 23, de 1 de febrero de 2008).

A la vista de lo anterior, y a propuesta del Área municipal de Participación y Transparencia,

2026(e)ko otsailaren 6(a)(e)ko PR/2026/365 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko otsailaren 6(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/365 de 6 de febrero de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 6 de febrero de 2026.

## EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

### EBAZTEN DUT

**LEHENENGOA.-** Parte-hartze eta Gardetasun Arloari dagozkion dirulaguntza lerroetako 2026ko ekitaldiko deialdia eta ebazpen honi erantsitako eransinak onestea:

1. diru-laguntza-ildoak: Galdakako erakundeen mantentzea, funtzionamendua eta sendotzea. Partida: 21 9241 48101. Zenbatekoa: 5.000 €

### RESUELVO

**PRIMERO.-** Aprobar la Convocatoria del ejercicio 2026 de las siguientes líneas de subvención correspondientes al Área de Participación y Transparencia, así como los anexos que acompañan a la presente resolución:

Línea de subvención 1: mantenimiento, funcionamiento, y fortalecimiento de las entidades de Galdakao. Partida: 21 9241 48101. Importe: 5.000 €



2. diru-laguntza-ildoak: proiektu interesgarriak herritarren nahiz komunitatearen parte-hartzearen alorrean. Partida: 21 9241 48102. Zenbatekoa: 7.000 €

**BIGARRENA.-** Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-oholean, Dirulaguntzen Estatuko Datu-basean eta Udalaren web-orrian argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Deialdia BAOean argitaratzen denetik 45 egun balioduneko epea irekitzea eskaerak aurkezteko.

Línea de subvención 2: proyectos de interés en el ámbito de la participación ciudadana y comunitaria. Partida: 21 9241 48102. Importe: 7.000 €

**SEGUNDO.-** Publicar la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el Tablón de Edictos electrónico, en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en la web municipal.

**TERCERO.-** Abrir un plazo de 45 días hábiles para la presentación de solicitudes desde la publicación de la convocatoria en el BOB.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO  
ELECTRÓNICAMENTE**

